



Erabiltzaileen formakuntza
(Informazio-alfabetazea-ALFIN)
Haur hezkuntza-Lehen hezkuntza

IRAKURTZEN BADAKIT

Lehen hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzendutako jarduera da. Helburuak:

- Udal liburutegia fisikoki non kokatzen den ezagutu eta gune desberdinak bereiztea (Txiki-txoko, informazioa eta erreferentzia, informatika, ikasteko gunea etab.).
- Liburutegiaren arau orokorrak ezagutzea (liburutegiko txartela, mailegua, ordenagailuen erabilpena, jarrera etab.).
- Informazio liburuak eta literatura liburuak bereiztea. Adin bakoitzerako egokiak diren liburuak hautatzen ikastea.

Saio hauek umeen parte hartzea bilatzen dute, ipuinak kontatzen dira eta umeei gustuko liburuak aukera ditzaten bultzatzen da.